

Okondo, 2021eko maiatzaren 12a

EAJ-PNV Okondok herritarrekin dituen betebeharrei erantzuten jarraituko du gobernu-taldetik

Biziki deitoratu du Okondo Aurrera taldeak Udal Gobernuaren kudeaketari buruzko zalantza piztu nahi izatea, eta bere jarrera, bizitza instituzionala eta politikoa etengabe lokaztean oinarritua, auzotarren ongizatea hobetzeko eraikitzailea ote den hausnartzera gonbidatu du

Eusko Alderdi Jeltzaleak Okondon, **Jon Escuza** alkatearekin batera, legegintzaldiko bi urte betetzear dituen honetan, herritarren beharrei erantzungo dien kudeaketa politikoa egiteko konpromisoa hartu duela jakinarazi du berriz ere.

Orain arte, EAJ-PNVk eta EH-Bilduk osatutako gobernu-taldeak tokiko exekutibo gisa dituen betebeharrak guztiei egin die aurre, eta Okondo Aurrerak argitaratutako prentsa-oharrak Arartekoaren eskaera bat besterik ez du jasotzen. Bertan, Udal Gobernuari eskatzen zaio izaera publikoko zenbait datu emateko, eta aste honetan bertan egingo da hori, inolako eragozpenik gabe.

Hala ere, EAJ-PNV Okondok argitu nahi du erabat faltsua dela talde independente politikoaren baieztapena, Udalak "San Romango ur ordainagiriak barkatu" dituela aipatzen duena.

San Roman auzoaren babesa

2019an, udako hilabeteetan, San Roman auzoa urez betetzen duen iturburu baten inguruko pisten baso-ustiapena egin zen, kamioien joan-etorri handiaren ondorioz. Uraren kolorea nahasi egin zen, eta kalitatea galdu, kontsumorako egokia ez izateraino.

Hori dela eta, EAJ-PNVk, alkatetzara iritsi berritan (hauteskundeak maiatzean izan ziren), San Roman auzoko bizilagunei iturburuko ur-hornidura eteteko erabakia hartu zuen, eta, horren orde, botilako ur-zerbitzua eskaini zuen Udalak, herritarrentzat inolako kosturik gabe, egoera hori konpontzeko beharrezko esku-hartzeak egiten ziren bitartean. Botilako ura errazteko ekimena, Okondo Aurrerak aurka egin ziona. Era berean, EAJ-PNVk udaldi honetako ohiko osoko bilkuretako batean (uztaila, abuztua eta iraila) San Romango herritarrei baliatu gabeko zerbitzu hori ordaintzetik salbuestea proposatu zuen, eta hori alderdi jeltzalearen, EH-Bilduren aldeko botoekin eta Okondo Aurreraren aurkako botoarekin onartu zen.

"Talde politiko honek bere bizilagunen interesak defendatzen dituen modu bitxia da, eta horrek erakusten du, beste behin ere, Okondo Aurrerak titularraren bila jarraitzen duela komunikabideetan, benetako ekimenik edo proiektu berririk ekarri gabe, Okondo hobia lortzen laguntzeko".

Tamargarria da Okondo Aurrera alderdi politikoak "kaziketzat" jotzea bere aurkari politikoei aurre egiteko. Hori guztia dela eta, EAJ-PNV Okondok Okondo Aurrerako zinegotziak animatu ditu udal-kudeaketari buruzko zalantza sortzeari uztera eta, irregulartasunen baten susmoa izanez gero, legezko bideak jarraitzera.